Iragarkiak

Obra, Zerbitzu eta Horniduren Enkanteak eta Lehiaketak

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

3255

EBAZPENA, 2011ko maiatzaren 20koa, Lurzoru eta Hirigintzako zuzendariarena, Gernika-Lumoko (Bizkaia) Santa Luzia sektorean, SZ R1 lurzatian araubide orokorreko babes ofizialeko 32 etxebizitza eta SZ R4 lurzatian araubide orokorreko babes ofizialeko 20 etxebizitza, eta horiei atxikitako eranskinak eraikitzeko itunpeko sustapenerako onurak esleitzeko dena.

Erreferentziako sustapena esleitzeko deialdi publikoaren oinarriak 2010eko irailaren 1eko EHAAn argitaratu ziren (168. zenbakia).

Proposamenak irekitzeko ekitaldia 2010eko azaroaren 8an egin zen goizeko 09:00etan. Proposamen ekonomikoak irakurri ondoren, aurkeztutako 21ak onartuak izan ziren.

Onartutako eskaintzak aztertu eta Lurzoru eta Hirigintza Zuzendaritzako zerbitzu teknikoek aginduzko txostena egin zuten. Aipatutako onuren esleipenerako Construcciones y Promociones Balzola SLU sozietatea proposatu zen.

Organo hau da esleipen hau egiteko eskumena duena, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta egitekoak ezartzen dituen azaroaren 24ko 607/2009 Dekretuaren 10.m artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Abenduaren 30eko 3854/1970 Dekretuaren bidez, onartutako Estatuko obrak kontratatzeko administrazio-klausula orokorren plegua onartu zen, eta horren 6. klausulan aurreikusitakoarekin ados, sustatzaileak bere egoitza jakinarazi beharko dio Administrazioari, eta finkatu ere, klausula horretan ezarritako moduan finkatu beharko du egoitza.

Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legeak eta Babes publikoko etxebizitzen araubide juridikoari eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuak xedatutako prozedura jarraitu da. Era berean, Administrazioarentzako proposamen onuragarriena zehazteko irizpideei dagokionez, dekretu horretan

Anuncios

Subastas y Concursos de Obras, Servicios y Suministros

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

3255

RESOLUCIÓN de 20 de mayo de 2011, del Director de Suelo y Urbanismo, por la que se adjudican los beneficios de la promoción concertada de 32 viviendas de protección oficial de régimen general en la parcela SZ R1 y 20 viviendas de protección oficial de régimen general en la parcela SZ R4 y sus anejos vinculados, en el municipio de Gernika-Lumo (Bizkaia), en el sector Santa Luzia.

Resultando que las bases de la convocatoria pública para la adjudicación de la promoción de referencia se publicaron en el BOPV n.º 168, de 1 de septiembre de 2010.

Resultando que, realizándose el acto de apertura de proposiciones a las 09:00 horas del día 8 de noviembre de 2010, una vez leídas las correspondientes proposiciones económicas se declararon admitidas las 21 proposiciones presentadas.

Resultando que, analizadas las ofertas admitidas y emitido el preceptivo informe por los Servicios Técnicos de la Dirección de Suelo y Urbanismo se propone la adjudicación de los beneficios reseñados a la entidad Construcciones y Promociones Balzola, S.L.U.

Considerando que este órgano es competente para proceder a la presente adjudicación, de conformidad con el artículo 10.m) del Decreto 607/2009, de 24 de noviembre, por el que se aprueba la estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes.

Considerando que, de acuerdo con lo previsto en la cláusula 6.ª del pliego de cláusulas administrativas generales para la Contratación de obras del Estado, aprobado por Decreto 3854/1970, de 30 de diciembre, el promotor estará obligado a comunicar a la Administración su residencia, y fijar, así mismo, ésta en los términos que en la citada cláusula se establecen.

Considerando que, se ha seguido el procedimiento establecido por la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, y el Decreto 39/2008, de 4 de marzo, sobre régimen jurídico de viviendas de protección pública y medidas financieras en materia de vivienda y suelo, habiéndose tenido en cuenta, para la determinación de la propuesta más ventajo-

ezarritako irizpideak hartu dira kontuan, eta kontratu honek beteko duen administrazio-klausula partikularren pleguko 5.3 klausulan xedatutakoaren arabera baloratuko dira.

Aipatutako xedapenak eta gai horretan oro har erabilgarri diren gainerakoak aztertuta, eta proposamenak irekitzeko ekitaldiko akta eta Lurzoru eta Hirigintza Zuzendaritzako zerbitzu teknikoek egindako txostena kontuan hartuta,

EBATZI DUT:

Gernika-Lumoko (Bizkaia) Santa Luzia sektorean, SZ R1 lurzatian araubide orokorreko babes ofizialeko 32 etxebizitza eta SZ R4 lurzatian araubide orokorreko babes ofizialeko 20 etxebizitza, eta horiei atxikitako eranskinak eraikitzeko sustapenerako onurak esleitzea ondoren adierazten den moduan:

1.– Sustapenak eskaintzen dituen onurak:

– Azalera-eskubidea eratu beharko da eta horren truke: azalera-eskubidea sortzen duen eskritura publikoa egiten den egunean sei mila eta hamar euro eta hamabi zentimoko (6.010,12) zenbatekoa eta dagokion BEZa ordainduko zaizkio Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari (BEZ kalkulatzeko, azalera-eskuabidearen eraketaren zerga-oinarria lagatako lur urbanizatuaren kostuaren zati proportzionala izango da, lagatako urbanizazioaren amortizazioa barne hartuta. Zati proportzional hori % 70ean finkatuta dago).

sa para la Administración, los criterios establecidos en el mencionado Decreto, valorándose los mismos conforme a lo dispuesto en la cláusula 5.3 del pliego de cláusulas administrativas particulares que regirá el presente contrato.

Vistas las disposiciones citadas y demás concordantes de general aplicación, y atendidos el acta de apertura de proposiciones y el informe emitido por los servicios técnicos de la Dirección de Suelo y Urbanismo,

RESUELVO:

Adjudicar los beneficios de la promoción y construcción de 32 viviendas de protección oficial de régimen general en la parcela SZ R1 y 20 viviendas de protección oficial de régimen general en la parcela SZ R4, y sus anejos vinculados, en el municipio de Gernika-Lumo (Bizkaia), en el sector Santa Lucia (parcelas SZ R1 y SZ R4), en los siguientes términos:

1.– Beneficios concurrentes en la promoción:

– Constitución de derecho de superficie con la siguiente contraprestación: Abono al Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, en la fecha de otorgamiento de la correspondiente escritura pública, la cantidad de seis mil diez euros con doce céntimos (6.010,12) por la cesión del derecho de superficie, más el IVA correspondiente (la base imponible de la constitución del derecho de superficie, a los efectos del cálculo del IVA, será la parte proporcional del coste del terreno urbanizado cedido, incluida en su caso, la amortización de la urbanización cedida. Esta parte proporcional se determina en el 70%).

Sustapena	Lurzoruaren kostua + urbanizazioa	% 70,00
Gernika-Lumoko (Bizkaia) Santa Luzia sektorean (SZ R1 eta SZ R4 lurzatietan), araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzen eta horiei atxikitako eranskinen itunpeko sustapena. SZ R1 lurzatian 32 etxebizitza egingo dira eta SZ R4 lurzatian 20 etxebizitza.	1.457.275,35	1.020.092,74

Promoción	*Coste de suelo + Urbanización*	*70,00%*
Sector Santa Lucia (parcelas SZ R1 y SZ R4) municipio de Gernika-Lumo (Bizkaia), con destino a la Promoción Concertada de 32 Viviendas de Protección Oficial de Régimen General en la parcela SZ R1 y 20 Viviendas de Protección Oficial de Régimen General en la parcela SZ R4, y sus anejos vinculados.	*1.457.275,35*	*1.020.092,74*

Sustapena kokatuta dagoen lurren gaineko azalera-eskubidea formalizatzeko, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren Aginduarekin batera doan Baldintzen Pleguari jarraituko zaio.

La formalización del derecho de superficie sobre los terrenos de ubicación de la promoción se realizará de conformidad con el pliego de condiciones adjunto a la Orden del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes.

Construcciones y Promociones Balzola SLU sozietateak berariaz egiten dio uko diru-laguntzen % 100i.

2.– Esleipen edo lehenengo eskualdaketarako gehienezko prezioak etxebizitza, trasteleku eta atxikitako garajeko metro koadro erabilgarriko:

Babes ofizialeko etxebizitzen eta horiei atxikitako eranskinen prezioa –esleipendunak erosleei aplikatu beharrekoa– Behin Behineko Kalifikazioa emateko unean indarrean dagoen gehieneko prezioa izango da, betiere kalifikazio hori esleipenari buruzko ebazpenean ezarritako epearen barruan eskatzen bada. Bestela, esleipenari buruzko ebazpenaren datan indarrean dagoen gehieneko prezioa aplikatuko da.

Sustatzaileari metro koadroko eman beharreko mailegu kualifikatuaren gehieneko kopurua: etxebizitza-arloko finantza-neurriei buruz indarrean dauden arauetan ezarritakoa aplikatzearen emaitzazkoa.

3.– Gauzatzeko epea:

Lehiaketa publikoa esleitu eta 3 hilabeteko gehieneko epean, Behin Behineko Kalifikazioa lortzeko Oinarrizko Proiektua aurkeztu beharko du azaleradunak. Kalifikazio hori lortzeko ezin izango da 6 hilabeteko epea gainditu (esleipenaren egunetik aurrera kontatzen hasita).

Behin Behineko Kalifikazioa jasotzen duenetik hasita, azaleradunak, gehienez ere 30 hilabeteko epean, eraikinak egiteko obrak amaitu beharko ditu, baita Babes Ofizialeko Etxebizitzen Behin Betiko Kalifikazioa eskatu ere.

4.– Sustapenaren ezaugarri teknikoak:

Baldintza tekniko eta juridikoen agiriari eta administrazio-klausulen agiriari atxikiz aurkeztutako eskaintzan zehaztutakoak.

5.– Lehen eskualdaketako etxebizitzen hartzaileek bete beharreko baldintzak:

Lehen eskualdaketako etxebizitzen hartzaileek bete beharreko gutxieneko baldintzak eta aukeraketa-prozesua babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedurei buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko apirilaren 16ko Aginduan adierazitako prozeduraren bidez finkatuko dira.

6.– Honako hau dago ezarrita deialdi publikoaren oinarrietan: «Sailkapena dagokion sustapena gauzatzeko aurrekontuaren araberakoa izango da.»

Construcciones y Promociones Balzola SLU sozietateak aurkeztutako eskaintzan, gauzatzeko aurrekontua 5.594.935,91 eurokoa da. Eskatutako sailkapena C2f da.

«Construcciones y Promociones Balzola, S.L.U.» renuncia expresamente al 100% de las subvenciones posibles.

2.– Precios máximos de adjudicación o venta en primera transmisión, por metro cuadrado de superficie útil de vivienda, trasteros y garajes vinculados:

El precio de viviendas de protección oficial, y sus anejos vinculados, que se aplicará por parte del adjudicatario a los/as compradores/as será el precio máximo vigente en el momento de la concesión de la Calificación Provisional, siempre que ésta se solicite dentro del plazo establecido en la Resolución de Adjudicación. En caso contrario, se aplicará el precio máximo vigente en la fecha de la resolución de adjudicación.

Cuantía máxima de préstamo cualificado por metro cuadrado a conceder al promotor: el que resulte de aplicar lo dispuesto en la normativa vigente sobre medidas financieras en materia de vivienda.

3.– Plazo de ejecución:

En el plazo máximo de 3 meses, a contar desde la adjudicación del concurso público, el superficiario deberá presentar el Proyecto Básico para la obtención de la Calificación Provisional. No debiendo superarse el plazo de 6 meses para la consecución de la misma desde la adjudicación.

En el plazo máximo de 30 meses, a contar desde la concesión de la Calificación Provisional, el superficiario deberá finalizar las obras de construcción de las edificaciones y solicitar la Calificación Definitiva de Viviendas de Protección Oficial.

4.– Características Técnicas de la Promoción:

Las especificadas en la Oferta presentada conforme a los pliegos de condiciones técnicas y jurídicas y de cláusulas administrativas.

5.– Condiciones de los adquirentes de las viviendas en primera transmisión:

Tanto los requisitos mínimos a cumplir por los adquirentes de las viviendas en primera transmisión, como el procedimiento para su selección se determinará mediante el procedimiento señalado en la Orden de 16 de abril de 2008, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre procedimientos de adjudicación de viviendas de protección oficial.

6.– En las bases de la convocatoria Pública se establece que: «La clasificación vendrá determinada por el presupuesto de ejecución de la promoción en cuestión.»

En la Oferta presentada por «Construcciones y Promociones Balzola, S.L.U.» el presupuesto de ejecución es de 5.594.935,91 euros. La clasificación requerida es C2f.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Etxebizitzako sailburuordeari. Ebazpenaren jakinarazpena egiten den egunaren biharamunean hasi eta hilabetekoa izango da horretarako epea.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko maiatzaren 20a.

Lurzoru eta Hirigintzako zuzendaria,
RAFAEL BERNARDO FARIAS BLANC

Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Viceconsejera de Vivienda en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 20 de mayo de 2011.

El Director de Suelo y Urbanismo,
RAFAEL BERNARDO FARIAS BLANC